EUSKADIKO FILMATEGIA

Euskararen Plan Estrategikoa (2026-2029)

2026eko ekaina



AURKIBIDEA

1 SARRERA 3

2 PROZESUAREN NONDIK NORAKOAK 5

3 DIAGNOSTIKOAREN ONDORIO NAGUSIAK 11

4 EUSKADIKO FILMATEGIAREN EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA 14

1 SARRERA

1.1. Kokapena

Euskadiko Filmategia,1978. urtean sortu zen Euskal Herriko ikus-entzunezko ondarea osatzen duen materiala gordetzeko beharrak bultzatuta. Euskal Herriko ikus-entzunezko ondarea zaintzeko burututako lanaren aitorpen gisa, Eusko Jaurlaritzak Herri Onurako Erakunde deklaratu zuen 1997an. Euskal artxibo zinematografiko bakarra denez, erreferentzia garrantzitsua bilakatu da euskal kulturaren baitan, batik bat ikerlari, produkzio-etxe, banatzaile, telebista, ikasle eta abarrentzat. 2004an fundazio bihurtu zen, eta bere patronatua Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Arabako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak osatzen dute. Eusko Jaurlaritzak bakarrik finantzatzen du erakundea.

Onartu berri den EAEko Sektore Publikoaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko 19/2024 DEKRETU berriaren arabera, eta, VII. Plangintzaldiari dagokion, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan berria kontuan hartuta (2024-2027), Euskadiko Filmategiak Euskara Plana diseinatzeko asmoa du.

Planak diseinatzeko eta kudeatzeko, KEMEN (**K**udeaketa eta **E**rabilera Markoa **E**uskararen **N**ormalizaziorako) egitura berria landu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPSk). Beraz, egitura berriaren arabera landuko dira, batetik, diagnostikoa, eta, bestetik, planaren diseinua.

Horiek horrela, Elhuyarrek lan horiek egiten lagundu dio Euskadiko Filmategiari. Txosten honetan honetan jaso ditugu **euskararen egoeraren diagnostikoa** egiteko eta **erabilera-plana diseinatzeko jarraitutako** urratsak. Prozesuaren emaitza, txosten bukaeran jasota dagoen erabilera-plana da.

1.2. Lege-testuinguruaren berrikuntzak

Onartu berri den EAEko Sektore Publikoaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko 19/2024 DEKRETUAri dagokionez, garrantzitsua iruditu zaigu haren eduki batzuk azaltzea:

- Dekretuak bere aplikazio eremua zabaldu du, Sektore Publiko osoa barneratuz, tartean Euskadiko Filmategia.
- Egokitzeko epeari dagokionez, erakundeek plangintzaldi hau eta hurrengoa izango dituzte eskakizun berrira egokitzeko (2033ra arte).
- Printzipio gidari nagusia hauxe izango da: **hizkuntza-politika, ekintzak eta jarduna bideratuko dira euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa guztiz normalizatzera.**
- Plan estrategikoak plangintzaldiaren lehen urtean onartuko dira, eta bost urteko iraupena izango dute.
- Hizkuntza normalizatzeko planen aktore nagusiak erakundeetako ordezkariak izango dira.

- Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak landu eta onartu beharko dira.

Bestalde, hizkuntza-eskakizunei dagokienez, Euskal Enplegu Publikoari buruzko 2022ko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 187.5 artikuluak aurreikusten du euskal sektore publikoko entitateetan dauden lanpostu guztiek dagokien hizkuntza-eskakizuna esleituta izatea, eta hizkuntza-eskakizun horrek zehazten du lanpostua hornitzeko eta bertan jarduteko behar diren euskarazko hizkuntza-gaitasunaren mailen multzoa.

2 PROZESUAREN NONDIK NORAKOAK

2.1. Prozesuaren helburuak

Helburu nagusia

- Euskadiko Filmategian euskarak duen egoeraren diagnostikoa egitea eta Euskara Plana diseinatzea, KEMEN metodologiaren arabera.

Zeharkako helburuak

- Langileen iritziak jasotzea eta haien inplikazioa areagotzea.
- HPSk eskatutako 14 adierazleen inguruko informazioa batzeko prozedura lantzea.
- 19/2024 Dekretura egokitzeko beharrezko aholkularitza eskaintzea.
-

2.2. Lanerako marko metodologikoa: Kudeaketa eta Erabilera Markoa Euskararen Normalizaziorako (KEMEN).

Esan bezala, VII. Plangintzaldiari dagokion Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana diseinatzeko KEMEN (Kudeaketa eta Erabilera Markoa Euskararen Normalizaziorako) marko berriaren adierazle-sistema hartuko dugu aintzat.

Zergatik marko berria?

Azken urteetako plangintzaldiek euskararen erabilera-planak modu eraginkorragoan bideratzeko kudeaketa-eredu berri baten beharra utzi zuten agerian. Eta eredu horrek marko berri batera ekarri gaitu.

Baina zer da KEMEN markoa?

KEMEN euskararen normalizazio-prozesua kudeatzeko sistema integrala da, edozein erakunde-motatan, euskararen erabilera normalizatzeko prozesua modu antolatu eta eraginkorrean kudeatzeko.

Sistema horrek erakundeei erabilera-planak euren errealitate eta beharretara doitzea ahalbidetuko die; hau da, bakoitzaren egoerara ondoen egokitzen diren adierazleak aukeratu ahal izango dituzte euren errealitatea, ezaugarriak, tamaina, gune soziolinguistikoa… ezberdinak direlako.

Marko berrian lehentasunezko tokia aitortzen zaio kudeaketari; hau da, planak garatzeko egiturari, sistematikari, lidergoari eta elkarlanari.

Beraz, KEMENek kudeaketa eta jarraipenerako adierazleen sistema eguneratzea ekarri du, eta hauek dira marko berriaren ezaugarri nagusiak:


- Edozein erakundetan, euskararen erabilera kudeatu eta jarraipena egiteko beharrezko atalak biltzen ditu.
- Adierazle-sisteman, eragin handia duten kudeaketa-adierazleak txertatu dira: jarraipena, zeharkakotasuna, kudeaketa sistematikoa, lidergoa, estrategia…
- Erakunde bakoitzak markoa bere errealitate, ezaugarri eta beharretara egokitzeko aukera izango du.

 Aginte-panela izango du; EAEko sektore publikoko erakundeen jarraipenerako gutxieneko adierazleak (14 adierazlez osatuta) biltzen dituen taula, alegia


KEMEN markoak bi ardatz nagusi ditu (Kudeaketa eta Erabilera) eta 13 arlo.

Bestalde, guztira 48 adierazle ditu; horietatik 14 dira sektore publikoko erakundeen jarraipenerako gutxienekoak eta aginte-panelean jasotzen dira.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPSk) adierazle horiek eskatzen ditu planen jarraipena egiteko, eta SAREGIN aplikazioan jaso behar dira. Bertan txerta daitezke, baita ere, planaren edukiak eta kudeaketa-planak.



Kudeaketa eta Erabilera Markoa Euskararen Normalizaziorako AGINTE-PANELA



2.3. Lanerako egiturak

KEMENek, gainera, planak diseinatzeko prozeduran eta metodologian ere ekarri ditu berrikuntzak. Izan ere, markoaren adierazleen arabera, erakundeetako **arduradunek zuzenean parte hartu behar dute erabilera-planaren diseinuan eta jarraipenean**.

Euskadiko Filmategiaren kasuan, arlo operatiboaz arduratuko den Talde Teknikoaz gain, arduradunek eta langile guztiek osatutako talde bat osatzea proposatzen dugu, **BATZORDE ERAGILEA**, diagnostikoa osatzeko eta adosteko, eta aurrera begirako erronkak eta ekintzak proposatzeko.

Hala, aurreikusitako lanak egiteko bi lantalde hauek proposatu ditugu:

	TALDE TEKNIKOA	BATZORDE ERAGILEA
Partaideak	•Elhuyarreko teknikaria •Erakundearen ordezkaria	• Elhuyarreko teknikaria • Erakundeko arduradunak eta langileak
Funtzioak	•Prozesua antolatu eta koordinatu. •Diagnostikoa osatzeko datuak bildu eta informazioa jaso. •Egiturak eta baliabideak antolatu. •Prozesuan zehar gertatzen diren arazoei irtenbidea bilatu.	• Diagnostikoa kontrastatu eta osatu. • Euskara Planaren erronka eta helburu estrategikoak proposatu eta adostu. • 2026-2029 Plan Estrategikoa osatu: ekintzak, epeak, arduradunak, jarraipena… • 2026erako kudeaketa-planaren eduki nagusiak zehaztu.
Funtzionamendua	•3 bilera	• 2 bilera

2.4. Planaren aurrelanak eta diagnostikoa.

	URRATSAK	LANAK	ARDURADUNAK
AURRELANAK	TALDE TEKNIKOA: 1. bilera	• Prozesua eta kronograma adostu eta antolatu. • Galdetegien bidalketa bideratu. • Elkarrizketatuak aukeratu. • Erabilera Batzordea osatu.	Elhuyar Talde Teknikoa
DIAGNOSTIKOA	DIAGNOSTIKOA	• Galdetegiak prestatu eta kudeatu. • Elkarrizketak egin (2). • Diagnostikoa osatu.	Elhuyar

2.5 Lan prozesua.

Datu bilketa

Datu-bilketa KEMENeko adierazle guztien gainekoa izango da, eta hauek izango dira erabiliko ditugun informazio-iturriak:

- **Langileen galdetegia**: langileen datu kuantitatiboak jasoko ditugu, euskararen kudeaketari (gaitasuna…) eta erabilerari (barne- eta kanpo-harremanak…) buruzkoak.
- **Erakundearen galdetegia**: erakundearen datu kuantitatiboak jasoko ditugu. Talde Teknikoarekin beteko dugu.
- **Langileei elkarrizketak**: bi elkarrizketa egingo ditugu informazio kualitatiboa jasotzeko.

Hauek dira Batzorde Eragilearen bileretan landu ditugunak:

1

Gaitegia

-Sarrera eta aurkezpenak.

-Diagnostiko-fasean jasotako emaitzak aurkeztu.

-Erronkak eta helburu estrategikoak

- Saioaren balorazioa egin.

Metodologia

Diagnostikoaren ondorioak aurkeztu eta horiek kontrastatu eta osatu.

Gero erronka nagusiak eta helburu estrategikoak identifikatuko ditugu. Horiek ondo definitzeko eta ideiak proposatzeko tarteari denbora eskaini.

Bukatzeko, saioa baloratu.

2

Gaitegia

-Sarrera eta kokatzeko ariketa.

-- Erabilera Planaren lan-ildoak, arduradunak eta epeak adostu.

- Saioaren balorazioa egin.

Metodologia

Saio honetan erronka nagusiak eta helburu estrategikoak lortzeko garatu beharreko lan-ildoak, arduradunak eta epeak zehaztu.

Bukatzeko, saioaren balorazioa egingo dugu; edukiak, emaitzak, parte-hartzea, giroa eta sentimenduak baloratu.

2.5 Prozesuaren amaiera.

	URRATSAK	LANAK	ARDURADUNAK
EMAITZA-TXOSTENA	BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA osatu	• Behin-behineko txostena idatzi saioetako ekarpenak kontuan izanda.	Elhuyar
		• Behin-behineko txostena aztertu eta osatu.	Talde Teknikoa
	BEHIN BETIKO TXOSTENA osatu	• Behin betiko Plan Estrategikoa idatzi. • 2025eko kudeaketa-plana landu.	Elhuyar
BALORAZIOA	TALDE TEKNIKOA: 3. bilera	• Prozesuaren eta emaitzen balorazioa egin.	Talde Teknikoa

3 DIAGNOSTIKOAREN ONDORIO NAGUSIAK

Diagnostikoa aparteko txosten batean jaso badugu ere, hona hemen bertatik ateratako ondorio nagusiak ardatzez ardatz:

3.1. Kudeaketa

- Euskararen Kudeaketa Orokorra

INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
	• Ez dago **Euskara Batzorderik** ez planik. • **Hizkuntza irizpideak ez daude** inon jasota.

- Lidergoa

INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
• **Arduradunek jarrera proaktiboa** erakusten dute.	

- Langileak

INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
• **Langile berriei euskararen ezagutza** eskatzen zaie. • **Langileek argi dute** beren jardunean **euskaraz zein funtzio bete** behar duten. • **Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte**, batez ere erabiltzaileei/ herritarrei begirakoak.	• Langileek **ezin dituzte hizkuntza-irizpideak kontsultatu**. • **Bilerak,** orokorrean, **gaztelaniaz** egiten dira. • **Hizkuntza-eskakizunak ez daude adostuta**.

- Gaitasuna

INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
• **Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak ahoz eta idatziz** euskaraz betetzeko.	• Ez da hizkuntza-trebakuntza eskaintzen.

- Euskararen erabilera sustatzeko estrategiaren komunikazioa

INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
• Erakundeak **beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan** parte hartzen du.	• Erakundeak ez die euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia **komunikatzen herritar eta interes-taldeei.**

- Hizkuntza-klausulak

INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
• **Kontratuetan, ahal denean, hizkuntza-klausulak txertatzen dira.**	• Ez da hizkuntza-klausulen jarraipen sistematikorik egiten.

3.2 Erabilera

- Irudia

INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
• Euskadiko Filmategiko **kartel denak elebidunak** dira. • Erakundeak **euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak.** • **Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan.** • **Proiekzio batzuk euskara hutsean antolatzen dira.**	

- Herritarrekiko harremanak

INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
• **Aurrez aurreko harretan euskara bermatuta** dago. • **Euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie.**	• **Katalogoa gaztelaniaz** bakarrik dago. • **Bisualizazioan dokumentatutakoa** gaztelaniaz bakarrik dago.

- Prestakuntza

INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
	• **Euskara ikasteko prestakuntza ez da eskaintzen**. • **Prestakuntza orokorra nagusiki gaztelaniaz** egiten da.

- Baliabide informatikoak

INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
• **Baliabide informatikoak euskara jartzeko aukera** dago.	• **Baliabide informatikoak nagusiki gaztelaniaz** erabiltzen dira.

- Sortze-hizkuntza

INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
• **Langile asko gai dira euskaraz sortzeko.**	• **Sortze-hizkuntza nagusiki gaztelania da.**

- Ondorio nagusiaK

- Erakundeari **kudeaketarako sistema egituratua** falta zaio: Euskara Batzordea?
- **Herritarren hizkuntza-eskubideak %100 bermatua** daude.
- **Kanpora begirako dena bi hizkuntzatan** egiten da, gutxienez.
- Euskadiko Filmategiko **lankideek bete behar dituzten irizpideak oso barneratuta dituzte**, modu naturalean ikasi dituzte, baina…
- **Hizkuntza-irizpideak ez daude inon** jasota.
- **Lankideen artean, euskaraz aritzeko gaitasun handia** dago, baina…
- **Ahozko harreman asko gaztelaniaz dira,** ohitura kontua.

*Diagnostiko osoa **EUSKADIKO FILMATEGIA DIAGNOSTIKOA dokumentuan** dago.

4. EUSKADIKO FILMATEGIAREN EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA

Euskararen Plan Estrategikoak 4 urteko iraunaldia izango du, hain zuzen ere, 2026etik 2029ra bitarte. Planak guztira 2 erronka, 13 helburu estrategiko eta 23 ekintza jasotzen ditu. Honako hauek dira Euskadiko Filmategiaren Euskararen Plan Estrategikoaren erronkak eta helburuak:

Kudeaketaren erronka	Euskararen erabilera sustatzeko egiturak eta baliabideak sortu

ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK
1.0.1EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	Euskara Batzordea sortzea eta hizkuntza irizpideak lantzea.
1.0.2 LIDERGOA	Arduradunek Euskara Plana sustatzea.
1.0.3 LANGILEAK	Lankideek kudeaketa-planeko ekimenetan parte hartzea.
1.0.4 GAITASUNA	Ahozko erabilera lantzea eta euskara teknikoan, arloko euskaran, sakontzea.
1.0.5 EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA	Beste erakunde batzuekin aliantzak sortzea.
1.0.6 HIZKUNTZA KLAUSULAK	Kontratu berrietan hizkuntza-klausulak txertatzeko aukerak baloratzea.

Erabileraren erronka	Euskararen erabilera handitu

ARLOA		HELBURU ESTRATEGIKOAK
2.1 ZERBITZU HIZKUNTZA	2.1.1 IRUDIA	Orain arteko bideari jarraituta, erakunde euskaldunaren irudia areagotzea.
	2.1.2 HERRITARREKIKO HARREMANAK	Lehen arretaz gain, bestelako testuinguru batzuetan ere euskararen erabilera normalizatzea.
2.2 LAN HIZKUNTZA	2.2.1 BARNE-HARREMANAK	Lankideen arteko euskararen erabilera handitzea.
	2.2.2 KANPO-HARREMANAK	Kanpoko enpresekin ditugun kanpo-harremanak gutxienez ele bitan izatea.
	2.2.3 PRESTAKUNTZA	Gure arloko euskara (teknikoa) landu.
	2.2.4 BALIABIDE INFORMATIKOAK	Baliabide informatikoak euskaraz erabiltzen hastea.
	2.5 SORTZE-HIZKUNTZA	Lankideak euskaraz sortzeko ahalduntzea.

Hurrengo orrian, Euskadiko Filmategiaren Euskararen Plan Estrategikoaren ekintzak jaso ditugu, eta baita horiek aurrera eramateko aurreikusitako kronograma ere. Edozein modutan, hori guztia Exceleko tresna batean jasota egongo da eta Euskadiko Filmategiak hori erabiliko du, Planari segimendua egin eta urteko kudeaketa planak prestatzeko. 2026eko kudeaketa plana ere Excelean dago, adostutako kronogramarekin.

VII. PLANGINTZALDIA: EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA

KEMEN: KUDEAKETA ETA ERABILERA MARKOA EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO

KUDEAKETA PLANA

EUSKADIKO FILMATEGIA
FILMOTECA VASCA

EUSKADIKO FILMATEGIA

1. ARDATZA — KUDEAKETA

Kudeaketaren erronka

Euskararen erabilera sustatzeko egiturak eta baliabideak sortu

ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	ZK	EKINTZAK	URTEA 2026	2027	2028	2029	ARDURADUNA(k)
1.0.1EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	Euskara Batzordea sortzea eta hizkuntza irizpideak lantzea.	1.1	Euskara Batzordea sortu.	X				Zuzendaria
		1.2	Hizkuntza Irizpideak idatziz jaso, adostuta dituzuenak Jaurlaritzakoekin alderatu eta behar bada moldatu.	X				Euskara Batzordea
		1.3	Hizkuntza Irizpideak zuzendaritzak onartu.	X				Zuzendaria
		1.4	Hizkuntza-irizpideak barneratzeko triptiko bat egin eta lankideei eskura banatu.		X			Euskara Batzordea
1.0.2 LIDERGOA	Arduradunek Euskara Plana sustatzea.	1.5	Arduraduna Euskara Batzordeko kidea izan.	X	X	X	X	Zuzendaria
1.0.3 LANGILEAK	Lankideek kudeaketa-planeko ekimenetan parte hartzea.	1.6	Makuilua astelehenero bidali.	X				Euskara Batzordea
		1.7	Urtean behin "euskara saio" bat antolatu.			X		Euskara Batzordea
1.0.4 GAITASUNA	Ahozko erabilera lantzea eta euskara teknikoan, arloko euskaran, sakontzea.	1.8	Zinemari buruzko hiztegia/glosarioa sortu eta elikatzeko/eguneratzeko bideak ezarri.				X	Artxibo saila
		1.9	Euskaraldian modu aktiboan parte hartu.	X		X		Euskara Batzordea /
1.0.5	Beste erakunde batzuekin aliantzak sortzea.	1.10	Eusko Jaurlaritzako egiturekin koordinatuta lan egin: Jendaurrean erabili, Xedera, Ari Gara…	X	X	X	X	Euskara Batzordea
1.0.6	Kontratu berrietan hizkuntza-klausulak txertatzeko aukerak baloratzea.	1.11	Hizkuntza Irizpideak onartzen direnean, ahal den kontratuetan gure hizkuntza-klausulak sartu.	X				Zuzendaria / Idazkaria

2. ARDATZA — ERABILERA

Erabileraren erronka

Euskararen erabilera handitu

ARLOA		HELBURU ESTRATEGIKOAK	ZK	EKINTZAK	URTEA 2026	2027	2028	2029	ARDURADUNA(k)
2.1 HIZKUNTZA IRUDIA ETA HERRITARREKIKO	2.1.1 IRUDIA	Orain arteko bideari jarraituta, erakunde euskaldunaren irudia areagotzea.	2.1	Urtean behin irudiaren ikuskapena egin.	X	X	X	X	Komunikazioa
			2.2	Agerraldi publikoetan euskara gehiago erabiltzeko agerraldien hizkuntza-erabilera jaso.	X	X	X	X	Komunikazioa
	2.1.2 HERRITARREKIKO	Lehen arretaz gain, bestelako testuinguru batzuetan ere euskararen erabilera normalizatzea.	2.3	Euskararen hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzun.	X	X	X	X	Lankide guztiok
			2.4	Sinaduran identifikagarriak gehitu.	X	X	X	X	Lankide guztiok
2.2 LAN HIZKUNTZA	2.2.1 BARNE-HARREMANAK	Lankideen arteko euskararen erabilera handitzea.	2.5	Euskaraz egiteko uneak edo espazioak sortu: elkarrekin bazkaldu euskaraz, kafea euskaraz…	X	X	X	X	Lankide guztiok
			2.6	Motibazioan eragiteko ekintzak eta kanpainak sustatu lankideen artean: Korrika, Euskaraldia, Euskararen Eguna, Egunean Behin, Makuilua…	X	X	X	X	Lankide guztiok
			2.7	Euskaraz egin daitezkeen bilerak identifikatu eta euskarari eutsiko dion pertsona bat identifikatu bilera bakoitzean.	X	X	X	X	Lankide guztiok
	2.2.2 KANPO-HARREMANAK	Kanpoko enpresekin ditugun kanpo-harremanak gutxienez ele bitan izatea.	2.8	Erakunde bakoitzaren harremanetarako hizkuntza identifikatu eta euskaldunek euskaraz egin.	X	X	X	X	Lankide guztiok
	2.2.3 PRESTAKUNTZA	Gure arloko euskara (teknikoa) landu.	2.9	Glosarioa lantzeko ekimena antolatu.				X	Artxibo saila / Guztiok
			2.10	Prestakuntza euskaraz eskaintzen duten enpresen zerrenda egin.				X	Lankide guztiok
	2.2.4 BALIABIDE INFORMATIKOAK	Baliabide informatikoak euskaraz erabiltzen hastea.	2.11	Euskarazko aplikazio informatikoak erabiltzea sustatu.				X	Lankide guztiok
	2.5 SORTZE-HIZKUNTZA	Lankideak euskaraz sortzeko ahalduntzea.	2.12	Idatzizko sorkuntzan euskararen erabilera areagotzeko teknologia berrien erabilera lankideen artean zabaldu. (Elia mahaigainean, Xuxen…)	X	X	X	X	Lankide guztiok

VII. PLANGINTZALDIA: EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA

KEMEN: KUDEAKETA ETA ERABILERA MARKOA EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO

PLAN ESTRATEGIKOA	EUSKADIKO FILMATEGIA FILMOTECA VASCA	EUSKADIKO FILMATEGIA

1. ARDATZA — KUDEAKETA

Kudeaketaren erronka: Euskararen erabilera sustatzeko egiturak eta baliadideak sortu

ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK				
		ZK	ADIERAZLEAK	BISIOA		
				HASIERAKO EGOERA 2026 %	AURRE KUSITAKO EGOERA 2029 %	ALDEA igoera %
1.0.1EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	Euskara Batzordea sortzea eta hizkuntza irizpideak lantzea.	2	Erabilera plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da	% 25	% 100	% 75
1.0.2 LIDERGOA	Arduradunek Euskara Plana sustatzea.	4	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezen.	% 99	% 100	% 1
		5	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	% 100	% 100	% 0
1.0.3 LANGILEAK	Lankideek kudeaketa-planeko ekimenetan parte hartzea.	8	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte	% 100	% 100	% 0
1.0.4 GAITASUNA	Ahozko erabilera lantzea eta euskara teknikoan, arloko euskaran, sakontzea.					
1.0.5 EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA	Beste erakunde batzuekin aliantzak sortzea.					
1.0.6 HIZKUNTZA KLAUSULAK	Kontratu berrietan hizkuntza-klausulak txertatzeko aukerak baloratzea	19	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari	% 100	% 100	% 0

2. ARDATZA — ERABILERA

Erabileraren erronka: Euskararen erabilera handitu

ARLOA		HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK				
			ZK	ADIERAZLEAK	BISIOA		
					HASIERAKO EGOERA 2026 %	AURRE KUSITAKO EGOERA 2029 %	ALDEA igoera %
ERABILTZU HIZKUNTZA	2.1.1 IRUDIA	Orain arteko bideari jarraituta, erakunde euskaldunaren irudia areagotzea.					
	2.1.2 HERRITARREKIKO HARREMANAK	Lehen arretaz gain, bestelako testuinguru batzuetan ere euskararen erabilera normalizatzea.	25	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen	% 90	% 100	% 10
			26	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz	% 100	% 100	% 0
			27	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira	% 30	% 35	% 5
			28	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak	% 100	% 100	% 0
			29	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz	% 100	% 100	% 0
LAN HIZKUNTZA	2.2.1 BARNE-HARREMANAK	Lankideen arteko euskararen erabilera handitzea.	33	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da	% 85	% 90	% 5
			35	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira	% 90	% 100	% 10
	2.2.2 KANPO-	Kanpoko enpresekin ditugun kanpo-harremanak	40	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak	% 100	% 100	% 0
	2.2.3 PRESTAKUNTZA	Gure arloko euskara (teknikoa) landu eta ahozko erabilera sustatzea.					
	2.2.4 BALIABIDE	Baliabide informatikoak euskaraz erabiltzen hastea.					
	2.2.5 SORTZE-	Lankideak euskaraz sortzeko ahalduntzea.	48	Euskaraz sortzen dira dokumentuak	% 10	% 25	% 15